

Nafarroako Gobernuak "oso positibotzat" jo ditu Nafarroako Ubidearen garapenaren inguruan egindako aurrerapenak

2021. urte honen amaierarako, 2. errepidearen eraikuntza-proiektua amaituta izatea aurreikusten da, ondoren administrazio- eta ingurumen-izapideak egiteko

Asteazkena, 2021ko Martxoaren 24a

Nafarroako Gobernuak "oso positibotzat" jo ditu Canasako Administrazio Kontseiluak atzo hartutako konpromisoak, Nafarroako Ubidearen 1. eta 2. faseei dagokienez.

Topaketan, zein modu telematikoan ospatu zen, parte hartu zuten Espainiako Gobernutik, MITECO-ko azpi-idazkaria eta CANASA-ko presidentea den Miguel González Suelak; Rosa Cobo idazkari orokorrak, eta Nafarroako Gobernutik berriz, José María Aierdi Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak; Elma Saiz Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak; Bernardo Ciriza Lurralde Kohesioko kontseilariak, eta Itziar Gómez Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak.

2. fasearen proiektu eraikitzailea 2021 honetarako

Topaketa horretan, CANASA elkarteak Nafarroako Kanalaren bigarren faseko obren oinarritzko planifikazioaren txostena aurkeztu zuen, joan den urtarrilaren 7an proiektuaren idatzizko kontratuaren etenaldia altxatu eta aldi berean bi hoditeria eraikitzea hautatu ondoren, kontuan hartuta **joan den urrian hitzartu** zutena Nafarroako Gobernuak eta Espainiako Gobernuak.

2. faseko proiektuari dagokion aurrerapen testuinguru honetan, CANASA elkarteak atzo onartu zuen 2. fase honetako proiektu eraikitzailea 2021. urte honen amaierarako idatzita egotea, jarraian bere administrazio- eta ingurumen-izapideak egiten hasteko.

Nafarroako Kanalaren 2. fase honek, Erriberako 70.000 biztanletik gorako kopuru batentzat kalitatezko ur horniduraren bermea ekarriko duenak, 70 eta 80 arteko kilometroko luzerako garraio azpiegitura baten eraikuntza suposatzen du, barne hartzen dituena 11 ureztatze-hargune eta bi erregulazio urtegi, bat jatorrian, Pitillasen, 0,45 hm³-ko edukierarekin, eta beste bat amaiera-eremuan, Ziertzoko mendien ingurunean, Tuteran, 9,06 hm³-ko edukierarekin.

Hitzarmena Mairagako Mankomunitatearekin ahoko uraren hornikuntzarako

Era berean, CANASA elkarteak Mairagako Mankomunitatearekin hitzarmena izenpetzea baimendu zuen Nafarroako Kanaletik ahoko uraren 100 l/s-ko emari maximo baten hornidura egiteko, urteko 3 Hm³-ko bolumenarekin.

Nafarroako Kanaletik eginiko hargunearen obra 7A Tartean aurkitzen da. Hornidura-gune honetatik, Mairagako Mankomunitateak ltoitzeko urtegitik datorren urarekin hornituko ditu, "La Pedrera"ko Ur Edangarriaren Tratamendu Estazioaren (ETAP) bitartez, Ur Integratuaren Zikloan adskribatuta dauden Mankomunitateko tokiko entitate kideak.

Hartutako konpromisoen balorazio "oso positiboa"

Nafarroako Gobernuak balorazio "oso positiboa" egin du atzo adostutako hitzarmenen eta ondorioen inguruan, eta horrek, bere esanetan, agerian jartzen du Nafarroako Kanalaren proiektuaren aurrerapen integrala, joan den urrian Nafarroako Gobernutik eta Espainiako Gobernutik jada adostutako terminotan.

Nafarroako Gobernuak gogorarazten du, Nafarroako Kanalaren 2. Faseari dagokionez, "proiektuak kalitatezko ahoko uraren hornikuntza ahalbidetuko duela Erriberako 70.000 biztanle baino gehiagorentzat, aldi berean ureztatze eta industriarako beharrezko ura bermatuz eta horrela eremuko lurralde orekan eta garapen ekonomikoan aurrerapausoak emanez".

El Gobierno de Navarra valora “muy positivamente” los avances en torno al desarrollo del Canal de Navarra en su integridad